

# PRACTICUM II–III: PROGRAMA GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA  
UPV/EHU



**2020-2021 IKASTURTEA:**

**Gizarte Hezkuntzako Practicum II eta IIIko tutoreak:**

Elisabet Arrieta, María Dosil, Joxe Garmendia, Joxe Jiménez, Unai Liberal, Jon Mikel  
Luzarraga, Joana Miguelena, Hilario Murua, Goretti Orbea, Iker Pérez, Iñaki Pikabea, Eli  
Sáenz y Ana Villamor

**Koordinatzailea:** Jon Mikel eta Joana Miguelena

# PRACTICUM II–IIIKO PROGRAMA

## GIZARTE HEZKUNTZA

### HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA

#### FAKULTATEA

#### UPV/EHU

#### AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>2. Metodologia.....</b>	<b>3</b>
2.1. I Fasea .....	3
2.2. II. Fasea .....	5
<b>3. Practicum II eta IIIko azken memoria .....</b>	<b>7</b>
<b>4. Practicum II eta IIIko ebaluazioa .....</b>	<b>9</b>
4.1. Fakultateko tutorearen ebaluazioa .....	9
4.2. Praktiketako zentroko instruktorearen ebaluaketa.....	10
<b>5. Practicumari buruzko legedia .....</b>	<b>10</b>

#### AURRETIKO GOGOETAK

- Ikasle guztiek Practicum **fase desberdinetan** parte hartu behar dute, baita entregagai guztien entrega. tan aurkezturiko jarduerak.
- Salbuespenak tutoreekin hitz egin.

## 1. SARRERA

Practicuma funtsezko gaia da ikasketa planean. Haren bidez jarduera profesionalera hurbilduko da ikaslea, gizarte eta hezkuntza errealitatea ikusiz, behatuz, hausnartuz eta esku hartuz bere lanbidea izango denaren inguruan gogoeta eginez.

Practicum hau Gizarte Hezkuntzako Graduko laugarren ikasturteko lehen eta bigarren lauhilekoan egingo da eta 12 eta 18 ECTS kreditu ditu. Era berean, gradu horretako VII. Moduluaren barnean dago “Garapen profesionala eta gizarte hezkuntza jarduna” izeneko.

## 2. METODOLOGIA

Gizarte Hezkuntzako Practicum II eta IIIak 30 kreditu aurre ikusten ditu: lehen 12ak lehen lauhilabetean eta 18 bigarrenengan garatuko direnak. Practicum bakar bat bezala uler daiteke eta hurrengo atalak ditu:

### 2.1. I. FASEA:: aurkezpena, formazioa, zentzua eta antolaketa

COVID 19ak eszenatoki ezezagun bat aurkezten digu 2020/2021 ikasturtean. Nahiz eta ezjakintasuna nabaria izan ikasturte hasiera honetan, hainbat kontu ezagutzen ditugu. Iraileko formazioak talde txikietan egingo dira segurtasun neurriak bermatze aldera. Hori horrela, ikasturte honetan, hasierako formazioa tutore bakoitzak egingo du tutorizatzen dituen ikasleekin. Formazio hau fakultateko ikasgela batean egingo da (zehazteke). Presentzialtasuna bermatu ezin bada, formazioa *Blackboard Collaborate* bidez egingo da.

Fakultatean garatuko da irailaren lehenengo asteetan praktiketako zentrorra joan aurretik. Practicumean kokatzea, prestakuntza-aldi horretako prestakuntza-jardueretan eta zereginetan izan dezakeen teilakapena bideratzea, eta praktiketako prozesua kokatzeko eta aztertzeko egokiak diren ikaskuntza-tresnak zehazten laguntzea.

Tituluko laugarren mailako practicumak oinarri izan behar dituen alderdi teorikoak, testuinguruarenak, instrumentalak eta bizipenenak zehaztea du xede. Metodologia aktiboen bidez ekingo zaie aurretiko esperientzia berrikusteari, praktikak egingo diren erakundeen esparruetan alde aurretik kokatzeari, eta horretarako funtsezko alderdi teoriko-praktikoei.

Formakuntza saioak irailean egingo dira, ikastetxeetan praktikak hasi aurreko asteetan. Hauen helburua da aurreko moduluetan zehar garatutako gaitasunak Practicum I.ekin loturiko gaitasunekin lotzea, horren inguruan gogoetak eginez, tresnak garatuz, eta zentroaren eta eskarmentudun ikasleen aurkezpenen bidez. Prozesu horri aurrera eramateko, honako jarduerak garatuko dira:

- Practicumaren testuingurua eta aurkezpena
- Tresna metodologikoak
- Kode deontologikoa
- Rol profesionala
- Ikasleen eta praktika-zentroen testigantzak

- Idazkera akademikoa
- Euskal Autonomi Erkidegoaren gizarte zerbitzuen eskutitza

Hurrengo koadroetan saio bakoitzaren helburuak eta jarraituko den metodologia jasoko da.

Hurrengo koadroetan saio bakoitzaren helburuak eta jarraituko den metodologia jasoko da.

<b>1. Practicumaren testuingurua eta aurkezpena</b>	
<b>Helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ikasleak testuinguruan kokatzea, ikaskuntzaren gaitasunei eta emaitzei dagokienez.</li> <li>● Practicum II eta III delakoen egitura, faseak eta dokumentazioa ikasleei aurkeztea.</li> <li>● Gizarte Hezkuntzako praktiken zerbitzuak (zentruak) testuinguruan kokatzea, gaitasunen mapa batetik abiatuta.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Fakultatearen web-orritik, Practicumaren programa deskargatuko dira: gaitasunak - Ikaskuntzaren emaitzak eta Practicum II eta III faseak.</li> <li>● Fakultatearen webgunetik, banan-banan berrikusiko dira entregatu beharreko eranskinak eta dokumentazioa.</li> <li>● Talde bakoitzak bere eremuari dagokion mapa egingo du, honako hauek zehaztuta: <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="radio"/> Erakundea</li> <li><input type="radio"/> Zerbitzua</li> <li><input type="radio"/> Administrazioa: Udala/Aldundia/Eusko Jaurlaritza</li> <li><input type="radio"/> Legedia</li> </ul> </li> </ul>

<b>2. Tresna metodologikoak</b>	
<b>Helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Behaketa eta bilketa gidatuko duten teknikak eta tresnak ezagutzea.</li> <li>● Practicumerako behaketa-fitxa bat egitea.</li> <li>● Bizipenak, deskribapenak, harremanak eta abar biltzeko dugun modua aztertzea.</li> <li>● Hausnarketara bideratutako gure jardunbideen bilketa errazteko jarraibideak adierazi.</li> <li>● Egunerokoen teknika ezagutzea.</li> <li>● Gertakari kritikoak idaztea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Talde txikietan, bi une bereiziz: <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="radio"/> Teknikei, tresnei eta abarri buruz hausnartzera bideratua, testu-irakurketa, behaketaren definizioa, zer behatu, kode deontologikoa eta abar oinarri hartuta.</li> <li><input type="radio"/> Tresna eraikitza bideratuta: zer behatu behar dugu?</li> </ul> </li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Proposatutako gai bati buruzko banakako idazkia egitea.</li> <li>● Oinarrizko elementuen azterketa eta talde-eraikuntza.</li> <li>● Egunerokoen laburpenen analisia (deskriptiboak eta gogoetazkoak).</li> </ul>
--	---

<b>3. Kode deontologikoa</b>	
<b>Helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologikoa ezagutzea.</li> <li>● Praktika profesionalean gerta daitezkeen gorabehera kritikoak aztertzea eta horiei buruz hausnartzea.</li> <li>● Gizarte Hezitzailearen Kode etikoarekin lotutako gure jarduna aztertzea eta horri buruz hausnartzea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Gizarte-hezitzailearen Kode deontologikoaren analisia.</li> <li>● Hainbat jardunbide eta esku-hartze modu aztertzea, gizarte-hezitzailearen kode deontologikoa errespetatuz.</li> </ul>

<b>4. Rol profesionala</b>	
<b>Helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Gizarte-hezitzailearen rol profesionala ezagutzea.</li> <li>● Rol profesional horri esleitzen zaizkion funtzioak ezagutzea.</li> <li>● Lanbidearen barruko eta barruko harremanen esparrua, lanbidean jarduteko gizarte- eta lan-baldintzak, autopertzepzio profesionala eta abar ezagutzea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Hainbat praktika eta esku-hartze aztertzea.</li> </ul>

<b>5. Ikasleen eta praktika-zentroen testigantzak</b>	
<b>Helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Praktika-zentroen funtzionamendua ezagutzea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Hainbat zentrotako arduradunek beren lantokietan nola funtzionatzen duten azalduko dute.</li> <li>● Ikasle ohiek praktika-zentroetan izandako esperientziak kontatuko dituzte.</li> </ul>

<b>6. Idazkera akademikoa</b>
-------------------------------

<b>Helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan akademiko bat nola aurkezten den ikastea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testu akademikoak aztertuko dira.</li> <li>• Adibideak berrikusiko dira.</li> <li>• Lan akademiko baten egiturarekin eta edukiekin erlazionatutako ariketak egingo dira.</li> </ul>

<b>7. Euskal Autonomi Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen Eskutitza</b>	
<b>Helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Autonomi Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen Eskutitza ezagutzea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Autonomi Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen Eskutitzaren aurkezpena Gipuzkoako Elkargo ofizialak egingo du.</li> </ul>

## II. Jarduera

**2.2. Practicum II-IIIko II Fasea. Practicumaren sarrera eta garapena zentroetan eta Fakultatean egin beharreko mintegiak. (28 kreditu ECTS=700 ordu: 505aurrez-aurrekoak eta 195 ordu bestelakoak).**

Praktiketako Zentroetan garatuko da 2020eko irailaren 28tik 2021ko maiatzaren 15era arte.

Atal honetan egin beharreko lanaren bidez bultzatuko da: batetik, ikasleak bere rol profesionala eraikitzea, behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez, beste profesional batzuekin elkarlanean; eta bestetik, ikaslea profesional bezala trebatzea, zuzeneko esku-hartzearen bidez. Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean.

### **Gizarte Hezkuntzako praktikak zentroetan, zerbitzuetan eta erakundeetan**

Practicum II eta IIIaren zati hau hasierako harreman eta behaketa fasea gainditu ondoren ikasleak esku-hartze profesionalean integratzeko moduan antolatuta dago, tituluko profilak berezko dituen gaitasunak gara ditzaten.

Practicumaren ibilbideari dagozkion eranskinak ezagutu eta osatuko dira, beti ikaslea, praktiketako erakundeetako instruktore eta fakultateko tutoreen arteko adostasunarekin.

- Practicum hasterakoan:
  - Konpromezu Orria.

- XI. Eranskina: Praktika egingo duten ikasleek izenpetu beharreko dokumentua.
  - I. Eranskina: Prestakuntza Proiektua
  - Practicum II bukatzerakoan:
    - IV. Eranskina. Instruktoarearen Amaierako Txostena
  - Practicum III bukatzerakoan:
    - IV. Eranskina. Instruktoarearen Amaierako Txostena
    - V. Eranskina: Ikaslearen Amaierako Txostena
    - VI. Eranskina: Ikaslearen tutorearen amaierako balorazio txostena eta egiaztagiria
- I eta VI. Eranskinak tutoreek azalduko duten datetarako word formatoan bidali beharko dira. Eranskinak eta haien inguruko informazio gehiago jarraian aurkezten den helbidean topa daitezke:
- <http://www.ehu.es/eu/web/filosofia-hezkuntza-zientziak/anexos>

### **Jarraipen-mintegiak eta lanketa teoriko-praktikoa Fakultatean**

Mintegiak practicum honetan parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza- esparrua dira, eta, esparru horren baitan, ikasle bakoitzaren Prestakuntza Proiektuaren jarraipenari ekingo zaio. Mintegietan ikaskuntza sortzen eta sozializatzen da eta ezaguerak eskualdatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta; beraz, laguntza-ekoizpen eta komunikazio-guneak dira. Gainera, informazio-iturri garrantzitsuak dira, Gizarte Hezkuntzako lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, parte-hartzea eta praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiarekiko konpromiso profesionala eta soziala sustatuko dituzten ikaskuntzak bultzatzearen

Honako hauek dira intereseko gaietako batzuk: jardun profesionalaren egitura instituzionala eta araudi-egitura, harrera eta haren zentzua hezkuntza-harremanaren ezarpenari begira, ekintza profesionalean barneratuta dauden jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-hartzearen zentzua eta esanahia, esku hartzeko prozesuen eraikuntza eta abian jartzea, ekintza praktikoaren azterketa, harreman profesionalak eta lan koordinatua hezkuntzan, gizarte eta lan-esparruko baldintzak, prestakuntza-beharren proiektzioa.



### 3. AURKEZTU BEHARREKO LANAK

Practicumeko prozesuan zehar ikasleak hiru emangarri burutuko ditu, kontuan hartuz azpian aurkezten diren argibideak:

- 1. EMANGARRIA: Formakuntza
- 2. EMANGARRIA: Practicum II-aren memoria
- 3. EMANGARRIA: Practicum III-aren memoria

Hurrengo koadroetan emangarri bakoitzaren deskribapena jasotzen da, halaber, hauek izan beharreko eduki, metodologia eta entrega-data.

<b>1. EMANGARRIA: FORMAZIOA</b>	
<b>Deskribapena</b>	Tutoreari I fasean landutako zeregin guztien erreflexioa jasotzen duen dokumentua entregatuko zaio.
<b>Metodologia</b>	Formazioen hausnarketa: <ul style="list-style-type: none"><li>● Practicumaren aurkezpen eta testuinguraketa</li><li>● Tresna metodologikoak</li><li>● Kode deontologikoa</li><li>● Rol profesionala</li><li>● Ikasle go eta praktiketako zentroen testigantzak</li><li>● Idazketa akademikoa</li><li>● Euskal Autonomi Erkidegoaren Gizarte Zerbitzuen Eskutitza</li></ul>
<b>Entrega- data</b>	Entregatzeko data irakasle bakoitzak zehaztuko du.

### **2 eta 3. EMANGARRIAK: PRACTICUM II-AREN MEMORIA**

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko Azken Memoria egingo dute. Hau jarraipen minetegieta landutakoarekin lotuko eta osatuko dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute. Kontutan izan behar da, publikoki azaltzen den informazioa izenik gabe aurkeztu behar dela. (Ikus 1999ko abenduaren 13ko Datuen Babeserako Legea, 15/1999). Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharra idatziko ditu eguneroko batean.

#### **Memorietan jaso behar diren alderdiak**

##### **1. Aurkezpena eta ikaslearen datu pertsonalak**

##### **2. Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazio eta analisisia**

2.1. Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimen eta zentroaren jardura arloa

erregulatzen duen araudia.

2.2. Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.

2.3. Zentroaren antolakuntza testuingurua. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.

2.4. Zentroak garatzen duen ekintzaren esparru sozio-hezitzailea

### **3. Practicum IIan garatutako ekintzaren jasotze eta azterketa**

3.1. Prestakuntza Proiektuaren errebisioa: praktiketako helburuak, landu beharreko gaitasunak, dedikazioa, garatutako eginkizunak eta funtzioak

3.2. Zentroaren beharren identifikazioa, testuinguru zehatz batean txertaketa, profesional rolari dagokion gaitasunak kontutan izanik.

### **4. Esku-hartze proiektu baten diseinua, martxan jartzea eta ebaluazioa**

4.1. Praktiketako zentroaren esku hartze proiektu, programa edota ekintzen azterketa

4.2. Beharren ebaluazioa/detekzioa eta esku hartzearen helburuaren zehaztapena

4.3. Esku hartze proiektuaren/egitarauaren diseinua eta planifikazioa

4.3.1. Proiektuaren kokapena eta hartzaileak

4.3.2. Prozesuaren helburuak

4.3.3. Metodologia eta hezkuntza estrategiak

4.3.4. Denboralizazioa

4.3.5. Baliabideen aurreikuspena

4.4. Martxan jartzearen prozedura

4.5. Ebaluazioa, mugak eta hobekuntzarako proposamenak

### **5. Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa pertsonala**

5.1. Praktiketako ibilbidea

5.2. Prestakuntza-ibilbidearen azterketa eta Prestakuntza Proiektuari buruzko balioespina: ezarritako helburuen errebisioa eta ikaskuntzaren emaitzak.

5.3. Practicumeko lantaldea: mintegietan eta praktiketako zentroan. Ikaskuntzarako ekarpenak mintegietan egindako lanaren bidez.

5.4. Profesionalizazioa: rol profesionala, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua, lanbideko gizarte- eta lanbaldintzak, autopertzepzio profesionala.

5.5. Practicumaren balioespen orokorra, norberaren bizipenetan oinarritu.

Practicum IIko Memorian, aurreko gidoiko 1, 2 eta 3 puntuak sartuko dira. **Urtarrileko bigarren astean zehar aurkeztuko da.** Practicum IIIko 4. eta 5. puntuak kontutan hartuko dira eta **Maiatzaren bigarren astean zehar entregatuko da.**

\* Aurkeztutako ordena orientagarriak da. Lanak puntu horiei buruzko informazioa jaso behar du, baina ez da ezinbestekoa egitura horri jarraitzea.

#### 4. PRACTICUM II–IIIgo EBALUAZIOA.

Bi atal handi hartuko dira kontuan Practicumaren ebaluazioa egiteko: Fakultatean eginiko lana jasoko da lehenbizikoan, eta praktiketako zentroan egindakoa bigarrenean. Bi atal horiek gainditu beharko dira Practicuma gainditzeko. Azken nota bi atal horien baloraziotik aterako da, %50ean. Practicuma gainditzeko, bi atalak gainditu beharko dira nahitaez.

Jarraian ebaluagarri diren dokumentuak zehazten dira, bakoitzak duen puntuazioa, baita jarraitu dituen ebaluazio irizpideak ere.

	PRACTICUM II	
	Ebaluazioaren irizpideak	Gehiengo nota
<b>I. Atala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 80% gutxiengo asistentzia</li> <li>• Aurkeztutako materialaren kalitate akademikoa</li> </ul>	0,5 puntu
<b>Mintegiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Asistentzia eta parte hartzea</li> <li>• Eginkizunen gauzatze maila</li> <li>• Ibilbidearen hausnarketarako sakontze maila</li> </ul>	2 puntu
<b>Txostena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Txostenaren egitura eta irizpideekiko egokitzapena</li> </ul>	2,5 puntu
<b>Zentroaren ebaluazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zentroari dagokio</li> </ul>	5 puntu
I. Faseari dagokionez eta duen garrantzia aurreikusiz, antolatutako ekintzen %80ra ez joateak, dagozkion 0,5 puntu ez gehitzea suposatuko du		

	PRACTICUM III	
	Ebaluazioaren irizpideak	Gehiengo nota
<b>Mintegiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Asistentzia eta burutu beharreko lanak egitea</li> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Komunikaziorako trebetasunak egoki erabiltzea</li> <li>• Lan kooperatiboa mintegietan</li> </ul>	2,5 puntu
<b>Txostena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko irizpideekiko egokipena : <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Antolaketa eta forma</li> <li>▪ Hizkuntza egokia eta argumentazioa</li> <li>▪ Sakontzea eta edukien esanahiak</li> <li>▪ Esku hartze proiektuen lorpenak</li> <li>▪ Rol profesionalaren egokitzapenak</li> </ul> </li> <li>• Ibilbidearekiko hausnarketa</li> </ul>	2,5 puntu
<b>Zentroaren ebaluazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zentroari dagokio</li> </ul>	5 puntu

#### 2.3. Fakultateko tutorearen ebaluazioa.

Fakultateko tutoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzen edo baloratzeko garaian:

- Fakultatean antolaturiko jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joan den eta zer-nolako parte hartzea izan duen.
- Trebetasun sozialak izatea kideekin mintzatzeko eta erlazionatzeko.

- Estrategia eta prozeduren garapena eta erabilera praktika profesionalean.
- Practicumaren Azken Memoria: ebaluazio irizpideak
  - Memoriaren irizpideetara eta egiturara egokitzea:
  - Argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztean. Unibertsitateko eskakizun maila beteko du dokumentuaren erredakzioak
  - Zehaztapena, zorroztasuna eta argitasuna dokumentuaren azalpenean eta argudioak ematean. Lanbideko berezko hiztegia behar bezala erabiltzea
  - Eginiko praktiken inguruko azterketan eta gogoetan sakontzea
  - Garatutako lan arloan Gizarte Hezkuntzako profesionalaren eginkizunekiko egokitzapena eta konpromisoa. Profil profesionalaren azterketa eta hausnarketa karreran zehar landutako ikasketa-zientzia prestakuntzaren esparruan.

#### **2.4. Praktiketako zentroko instruktorearen ebaluazioa**

Practicum II eta IIIa amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori alde zurretik jasoko du, eta bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

- Praktiketako zentroko instruktoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian
- Aldez zurretik hitzartutako egutegiak eta ordutegiak bete dituen.
- Bere zereginak bete dituen, halakotzat hartuko dira dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsu eta burutsua.
- Talde profesionalen esparruan izandako elkarlana, ekimenerako gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea.

### **3. PRACTICUMARI BURUZKO LEGEDIA**

Practicumari dagokionez, indarrean dagoen legedia honako hau da:

- 1707/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, unibertsitateko ikasleek kanpoan egiten dituzten praktika akademikoak arautzen dituena.  
<http://www.boe.es/boe/dias/2011/12/10/pdfs/BOE-A-2011-19362.pdf>.
- Ikasleen Kanpoko Praktika akademikoen araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluak onartuta.  
[http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas\\_grado](http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas_grado)
- (2004) Gizarte Hezkuntzako Deontologia Kodea. Toledo.  
<http://www.eduso.net/red/codigo.htm>